

Udal talde politikoaren iritzia



BERRIKUNTZA ETA BALIO ERANTSIA, GETXOKO KONPROMISOAK

Azken lau urteak giltzarri izaten ari dira hurrengo belaunaldietako Getxoren oinarriak ezartzeko, eta behar besteko garrantzia ematen ari zaie hauteskondeetako konpromiso gisa ezarri genituen berrikuntza ekonomikoari nahiz balio-sorkuntzari. Hala esan genuen eta orain ere hala diogu, ilusio berberarekin eta geroz eta erreagoak diren aukerekin; izan ere, gure amets-tako Getxo hazteko, bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko udalerrri onena da.

Horiek horrela, lanaren alderdian ere getxoztarrekin hartu genituen konpromisoak betetzen gabiltza. Izan ere, egiazkoak dira jada, erabilgarri baitaude Getxoko EAJ-PNV alderdiaren hauteskunde-programan jasotako zerbitzu profesional aurreratuak eta kirolari, osasunari, kulturari, merkataritzari nahiz turismoari lotutako jarduera ekonomiko gauzatzeko espazioak. Duela zenbait egun, Amaia Agirre alkateak Getxo Sormen HUB zentroa inauguratu zuen Urgull-en, non espazio zoragarria izango baitute kultura- eta sormen-industriek. Kulturari, sormenari eta abangoardiari lotu-



tako jarduera gauzaten duten emakume eta gizonek aukera bikaina izango dute beren proiektua garatzeko. Bai eta proiektua Urgull Zentroko nagusiekin

partekatzeo aukera ere, benetan berri-tzailea den esperientziaren baitan. Ekintzaile berriei zuzendutako beste espazio bat ere sortu da, itsasoari,

nautikari eta irristatzekoei lotutako jardueretan aritzen direnentzat: Getxo Itsas HUB, Kirol Portuan.

Berrikuntza ekonomikoari eta balio-sorkuntzari lotutako konpromisoak hartu ditugu prestakuntza-maila nahiz maila pertsonal handia duten herritarrekin, Getxon funtsezkoak baitira. Pertsona onenak ditugulako, eta uste dugulako aukera onenak eskaini behar dizkiegula. HAPOa onesten denean, 140.000 metro karratu baino gehiago eskainiko dira Martiturrin, etorkizuneko enpresa-proposamenak sortze aldera. Bien bitartean, lonjak eta lokalak birmoldatzen ari dira ekintzailertzan dabilzan pertsonen modu eta proposamen berriak barne hartzeko. Horren erakusgarri da Lonjak Piztu programa edo enpresa handi eta txikien arteko lankidetzaren ahalbidetzeko helburu dutenak. Getxoko EAJ-PNV alderdiak ekintzailertzaren eta gizarte-berrikuntzaren aldeko konpromisoa hartu du, parte-hartzea eta kidetasuna indartu eta jasangarritasun ekonomiko, soziala eta ingurumenekoa sustatzeko. Aurrrera egiten jarraitu dezagun!



ALGORTAKO GASOLINDEGI ZAHARRAREN PROIEKTUA

ANDRADE GETXO 2023

Reinventar la GASOLINERA DE ALGORTA como parada de autobús



MEJORAMOS EL ESPACIO

Debido a la gran cantidad de autobuses escolares que paran en este lugar, lo convertiremos en una parada semicubierta.

Sei urte igaro direnean, Algortako gasolindegi zaharrean proiektu erabilgarri bat ezartzearen alde egiten jarraitzen dugu: autobus-geltoki estali bat, kioskoa eta komun publikoak dituen. Kokapen estrategikoa du, Algortako erdigunean baitago, eta oraingo autobus-geralekua eskasa da eskaintzen duen zerbitzurako; izan ere, ume ugari erabiltzen dute eskolako autobusa hartzeko, eta bidaiari ugari ere garraio pu-

blikoko geraleku gisa erabiltzen dute. Gure proposamenak barne hartzen du oraingo egitura mantentzea eta, hortaz, kostu ekonomiko txikia izango da eta ahalik eta gehien aprobetxatuko dira orain dauden instalazioak; horrez gain, oso beharrezkoa den autobus-geltoki estalia egingo da, kioskoa eta komun publikoak dituen, gure udalerrian aspalditik egindako eskaerari erantzunez. #esnatuGetxo



TRISTURA, INPOTENTZIA, AMORRUA... INPOSAKETA!

EAJk eta PSEk Lope de Vega 12ko eraikinak eraistean abiarazi duten jarrera harroputza salatzen dugu: berdina zaie ondarea, historia eta nortasuna, ez bakarrik auzo batena, baita milaka pertsonena ere. Alderdien interesak eta onurak auzo-koen gainetik jarri dira. Prozesu honetan argi geratu dira euren interesak eta eraikin horiek eraisteko behin eta berriz egindako saiakerak, denboran aldatuz joan diren hainbat proiektu-ekin. Ez dugu ulertzen zergatik bota nahi dituzten, eta oraindik ez digute erantzun, horrek auzoari kalte konponezina egiten dion bitartean: esperientziak, bizipenak, usainak, ahotsak, proiektuak... galduko dira.

EAJ-PSEk ez die kasurik egiten auzoak egindako proposamenei (mozioak, he-

rri-kontsultak, mobilizazioak...), eta, berehala eta bidegabeki bota dutenez, jendea behartuta egon da gorputzak protesta-jarreran eta erresistentzia bakesuan jartzera. Beste behin ere, erantzuna bortitza eta errepresiboa izan da, bai adinekoen bai gazteen aurka, haien eskubideak nabarmen urratuz. Borroka eta errebindikazio urte gogorak izan dira, eta azken aste hauetan areagotu egin da.

Romo auzoko proiektu guztien alde borrokatzen jarraituko dugu, baina eraikinak aurretik eraman dituzte EAJk eta PSEk, eta hori konponezina da.

Eskerrik asko Romo auzoari, elkarteei eta eragileei borroka honetan parte hartzeagatik. Romo aurrera!

Eraisketari Ez - Romo Plataforma



GETXO ETA BIZKAIARENTZAKO PROIEKTUA ERAIKITZEN DUGU

Getxoko alderdi sozialistako kideok aurrera egin nahi dugu gure udalerrarentzako **proiektu sendoa eta ambizio handikoa** eginez. Hori dela eta, **Getxoko erakunde eta eragileekin biltzeko eta haiek entzuteko prozesuan** murgilduta gaude. Hain zuzen ere, Getxoko alkategai den **Carmen Díazek** eta ahaldun nagusi izateko hautagai den **Teresa Laespadak** lehenengo bilerak izan dituzte elkartekin, **iritziak ezagutu eta alderatzeko**, eta lehenengo kasu hauetan hauexek dira jorratutako gaiak: berdintasuna, enplegua, inklusioa, gazteen egoera, lankidetzaren, etab. Lanean jarraitzen dugu **Getxo hobea izan dadin**.



ATZERAPUSOA ROMOKO HISTORIAN

Hitzak soberan daude. Soberan dago nagusien eta gazteen aurkako poli-ziaren indarkeria. Soberan dago jendearen aurkako proiektua inposatzea. Amaia Agirrek (EAJ) eta Carmen Díazek (PSE) pertsonen nahia kontuan ez hartzeari utzi behar diote. Nagusien Etxearen eraispena atzerapausoa da Romoko historian. Gure babes osoa eskaini nahi diegu nagusiei. Maiatzeko hautetsontzietan erantzun argia ematea nahiko genuke.

